



**Gorka Etxebarria Dueñas**  
Historialaria

# Mundiala boikotatu?

**E**ric Cantonari kasu egin eta gizonezkoen futbol mundiala ez ikusteko erabakia hartua nuen. Lasai-lasai nengoen, koherentziaz beteta. Nola ikusi mundial bat giza eskubideak eta eskubide zibilak errespetatzen ez dituen herrialde batean antolatua? Are, beharrezko futbol zelaiak ez zituen herrialde batean, kontuan hartuta erlojupekoa bailitzan eraiki dituztela eta milaka langile hil direla? Hurrengoa zer izango da, surf mundiala Andorran antolatzea? Badirudi broma dela baina Saudi Arabian 2029an neguko jokoak antolatuko dituztela irakurri dut nonbait...

Kontua da ni patxadatsu nenbilela, Marokoko selekzioak jokatu zuen arte. Institutua urdurituta zebilen eta nik ez nekien zergatik. Bada, ikasleen familien bostena herrialde horretatik iritsi da eta, noski, kamisetak eta txandalak zeramatzaten, egunari zegokion bezala. Eta gu, mundiala ikustea hipokrisia zela sinetsita. Sarrera konexioa ere kendu zuten erakinean, partida ikustea ekiditeko. Ongi pentsatuta, euskal selekzioak jokatuz gero ez litzaiguke logikoa irudituko ordu horretan norgehiagoka ikusteko aukera ematea?

Kasualitatez, Marokoren partidua ikusteko irrikaz zegoen ikasle batekin hitz egin nuen. Galdetu zidan enik ez nuen partidarik ikusiko. «Nik? Ez, mundial hau onartezina da». «Baina hori diozu arabiarrek direlako!». «Nola?». «Bai! Boikotatuko zenuen AEBetan izan balitz?». Pentsakor geratu nintzen eta argudioz aldatu behar izan nuen. Bueno, bada... Errusia deskalifikatu dutelako ez dut ikusiko! Nola liteke jokoz kanpo uztea herrialde bakarra inbaditzeagatik? AEBek hainbat inbaditu dituzte eta ez dute inoiz mundialetik kanpo utzi.



**Egunotan Oatarren jasotako irudia. Bi zale partida baten aurretik.**

Alfredo ESTRELLA | AFP

**Baina, hobeto pentsatuta, egia ote da berriro ere ikuspegi kolonial bat erreproduzitzen dugula eta zentzu batean modu arrazistan jokatzeari nintzela?** Herrialde batzuk boikotatzea errazagoa egiten zaigu men-debaldarroi beste batzuk baino: errusiar despotak, arabiar intoleranteak... Total, Qatarreko emirrari ongietorri beroa egin ziotela espainiar monarkek orain hilabete batzuk. Medaila bat ere eman zioten. Badirudi, Persiar golkoko herrialde arabiarrei hurbilketa eta Errusia jokoz kanpo utzi nahi izana mugimendu geopolitiko zabal baten parte direla. AEBek ez zuten inoiz onartu Gorbaxovekin adostu zutena, NATOren zabalpena mugatzeari buruzkoa. Errusiak berriro nazioartean pisua irabazi nahi izan duenean, isolatzeko mugimen-

dua abiatu dute eta arabiar herrialdeak hauspotu. Bost axola Yemeneko gerran gertatu dena azken urteetan.

Gizonezkoen munduko txapelketa-  
ren antolaketari kritika egiteak erri-  
dikuluan utzi gaitu europarrok. NA-  
TOren itzaletik irten ezinik eta  
Errusiarekin edozein akordio lortze-  
ko aukera blokeatuz. Gainera, zigor  
ekonomikoak deritzenekin europar  
gobernuek zigortu dituztenak euro-  
par herritarrak izan dira. Ez gara gai  
izan bakearen aldeko mugimendu zi-  
bil zabala martxan jartzeko. Gure ar-  
dura bakarra ea berogailua piztuko  
dugun izan da eta mundialari kritika  
moralak egitea. Ez gara ari maila ema-  
ten. Memoria egin behar dugu eta  
agudo, gogoratu behar dugu Euskal  
Herria NATOr ezetx esan zion nazioa  
dela. •